

Kutxabank eta MLBF lankidetzan arituko dira Bizkaiko metaleko enpresen egoera hobetzeko

- Europar Batasuneko 'Next Generation' laguntzak hobeto erabili ahal izateko plana elkarlanean sortu dute
- Bankuak enpresen eskuetan zerbitzu berezia jarriko du federakuntzako bazkideen egoera lehiakorra hobetzeko
- Metalaren alorrak 55.000 laguni ematen die lana lurraldean eta BPG-ren % 25 inguru da

2022ko martxoaren 21an. Metaleko Lantegien Bizkaiko Federakuntzak (MLFB) eta Kutxabankek lankidetzan hitzarmena sinatu dute enpresa bazkideen egoera bere onera ekartzen laguntzeko, Europar Batasunaren 'Next Generation' laguntzak hobeto erabiltzeko baliabideak ipinita. Egitasmoa metaleko enpresen behar zehatzei erantzuteko finantzazio gehigarriko plan batekin osatzen da.

Hitzarmena **Tamara Yagüek**, Metaleko Lantegien Bizkaiko Federakuntzako presidentea eta **Fernando Irigoyenek** sinatu dute, Kutxabankeko Handizkako Negozioko zuzendari nagusiak.

Akordioak **urtebeteko** iraupena izango du eta **luzagarria** izango da. Honen bitartez, Bizkaiko metalaren alorreko enpresa nagusiak bateratzen dituen federakuntzaren eskuetan **Kutxabank Next** plataforma jarriko du finantza-erakundeak. Tresna honek konpainia bakoitzaren profilerak egokitzen diren laguntza nagusien gaineko informazioa eskaintzen du, epealdiak zabaldu aurretik ere eskatu ahal izateko.

Kutxabank Next-ek eta hau osatzen duen lan taldeak deialdi berrien jarraipen estua egiten dute, aholkularitza guztia eman eta laguntza osagarriak banatu ahal izateko, beharrezkoa den kasuetan. Horretarako berezko finantza-programak ditu Kutxabankek, **Prenext**, **Anticipa**, **Conext** eta **Avalanext** izenekoak, Next Generation fondoan aurrerapen, finantzazio edota abal-behar guztiei erantzuteko gai direnak.

Metalaren alorra Bizkaiko industria garrantzitsuena da, bi mila enpresa baino gehiago ditu eta lurraldeko ekonomiaren eragile nagusia da. Alorra Euskadiko BPGren % 25 inguru da, eta zuzenean Bizkaiko 55.000 laguni ematen die beharra.

1977an sortua, MLFB Bizkaiko metaleko industria historikoaren oinordekoa eta jarraitzailea da, zortziehun bazkide inguru ditu eta Euskadiko enpresen artean arlokako antolakuntza nagusia da.